

2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

EGUNAK	Azaroak 16,18,23,25	IKASGELA/ TOKIA	IVAPeko kanpoko gelategia 10. gela Donostia-San Sebastián kalea, 1 Gasteiz
IRAUPENA	10 ordu	ORDUTEGIA	09:00 - 11:30
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Urriak 27	ONIRITZI EPEA	Urriak 28 – azaroak 4
IKASLE KOPURUA	12 gehienez	NORENTZAT	B2 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri- administrazioetako langileentzat. Derrigorrezkoa da B1 maila egiaztatuta izatea.
IRAKASLEA	AEK		

ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU
OROKORRAK**

2. HEko ahozkoak sortzen trebatzea.
Ahozko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.

**HELBURU
ZEHATZAK**

Azterketaren aurkezpena egitea.
IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jarioetasuna, aberastasuna, zulentasuna.
Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea.
Komunigaitasuna zer den azaltzea.
Jarioetasunaz berba egitea.
Aberastasanaren gaineko argibide batzuk ematea.
Zulentasanari buruzko azalpenak ematea: oinarrikoak diren akats larriak aipatu, aholkuak ematea.

GAITASUNAK

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 2. HEko ahozkoak sortu behar dituzenean, egitura jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
Bakarka edo binaka egingo da lan.
Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.



2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

Lau egunetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Eta jarraian, ahozko azterketaren entseguak egingo dira.

PROGRAMA

Bikote batzuek bakarkako saioa egingo dute, eta beste batzuek elkarreraginaren ariketa. Bikote bakoitzak bukatu eta gero, ikaskideek iritzia emango dute (gai/ez gai, zergatik, zer alde on izan dituen, zer eta nola hobetu ahal duen), eta irakasleak ere bere ikuspuntua emango du.

Bikoteak txandakatzen joango dira, ikasle guztiek bakarkako saioak eta elkarreraginarenak egiteko aukera izan dezaten. Halaber, horrela eginda, eta egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek izan dituzten alderdi positiboak indartzeko eta txarto egin dituzten puntuak hobetzen saiatzeko parada izango dute.

EBALUAZIOA

- **Ebaluaketaren helburua:** ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketan** ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

APROBETXAMENDUA

% 80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

114 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.